

2014ko abenduaren 18an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak izandako batzarrean, besteak beste, ondokoa erabagi dala:

ZAHARREN EGOITZAKO ARRETA PSIKOSOZIALA ETA BIOSANITARIOA ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA

Xedea

Arreta psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzuaren esleipena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2014ko urriaren 23n, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia batu da Arreta Psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzuaren esleipenerako proposamenak aztertzeko.

Bigarrena: Bizitzen Fundazioa izan da proposamena aurkeztu duan bakarra, 77.487,00 euroko proposamena egin daularik.

Hirugarrena: Dokumentazio guztia zuzen dagoela ikusita, 2014ko azaroaren 27an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia Arreta Psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzua Bizitzen Fundazioari esleitzea proposatu dau 77.487,00 eurogaitik.

Laugarrena: Esleipenerako beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin jako Bizitzen Fundazioari eta dokumentazio guztia zuzen aurkeztu dau. Txostena egin da Bizitzen Fundazioak aurkeztutako dokumentazio teknikoa egokia dala zehaztuz.

Argudioak

Espedientea behar bezala izapidetu da

Erabagia

Lehenengoa: Arreta Psikosoziala eta biosanitarioa zerbitzua Bizitzen Fundazioari esleitzea 77.487,00 eurogaitik. (BEZatik salbuetsita dago)

Bigarrena: Kontratua sinatzea 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra.

